

## Kirolaria zara

Oharra: gaiaren bukaeran *Rita* obra luzearen irakurtzea proposatzen da (10. saioa). Ikasleak goizago has daitezke irakurtzen, edo erregulariki kapitulu bat irakur diezaikezue.

### 1. saioa

#### Helburuak

Herri kirolen arauen ezagutzea.  
Aginte testuen lantzea.

#### Ibilbidea


<b>Bakarka</b>	<p><b>Gaian sar zaitez</b></p> <p>Irakaslea: “Eskuliburuko 36. eta 3.7 orrialdeei so eginen diezue, egin behar duzuen lanaren ulertzeko.” Ikasleek agindua irakurri eta, adibide bat talde osoan egin daiteke.</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Herri kirola</th> <th>Argazkia</th> <th>Testua</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Harri altxatzea</td> <td>13</td> <td>A</td> </tr> </tbody> </table> <p>Ondotik ikasleak bakarka ariko dira.</p> <p><b>* Zailtasunei egokitzeko</b></p> <p>Ikasle batzuek ariketa idatziz egiten duten bitartean (taula osatuz edo orrialde batean), irakaslea beste ikasleekin ariko da.</p>	Herri kirola	Argazkia	Testua	Harri altxatzea	13	A
Herri kirola	Argazkia	Testua					
Harri altxatzea	13	A					
<b>Ikastalde osoa</b>	<p>Zuzenketak</p> <p>Zer testu mota den ohartaraziko zaie ikasleei.</p>						
<b>Binaka</b>	<p><b>Irakaslea:</b> “<i>Herri kirolen hobeki ezagutzeko, arau zehatzagoak irakurriko dituzue, eta ondotik lagunei aurkeztuko.</i></p> <p><b>Materiala eta joko eremua deskribatu beharko dizkiezue, marrazki bat eginez nahi baduzue. Ondotik arauak lagunei azalduko dizkiezue.</b>”</p> <p>Bikoteek marrazki bat egiten ahalko dute, eskema zirriborro bat edo hitz batzuk idazten baina ez dute aurkezpen guzira idatziz prestatuko. Beren notetan oinarrituz, ikasleak ahozko aurkezpenaren egiten trebatuko dira ikasgelan.</p> <p><b>* Testuak</b> ikasleen gustuen arabera edo heinaren arabera banatuko dira.</p>						
<b>Ikastalde osoa</b>	<p>Bikote bakoitzak herri kirol bat aurkeztuko dio ikastaldeari.</p>						
<b>Ikastalde osoa</b>	<p><b>Saioaren bilana:</b> “<i>Zer ikasi duzue?</i>” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</p>						

### 2. saioa

#### Helburuak

Argibide dokumentuen irakurtzen trebatzea.  
Galderak idatziz egiten ikastea.  
Erabili estrategia azalduz, galderen erantzunak ahoz egitea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN													
<b>Binaka</b>	<p><b>Testua uler ezazu 1)</b></p> <p>38.-49. orrialdeak hostokatzea proposatuko zaie ikasleei, dokumentuaren egitura berriz aztertzeko (<a href="#">ikus gidaliburu honetako .or.</a>) eta aipatuak diren kirolen ezagutzeko.</p> <p><i>Irakaslea: “Kirolari buruzko dokumentua irakurtzen ikasiko duzue, erran nahi baita argibideen aurkitzeko estrategia egokien erabiltzen.”</i></p> <p>Lana bikoteka antolatuko da. Bikote bakoitzak kirol bati buruzko argibide dokumentua irakurriko du, ikasleen heinaren eta gustuen arabera.</p> <p><i>Irakaslea: “Bikote bakoitzak ikastaldeari egiteko galderak prestatuko ditu. Orrialde bikoitza (edo lauzpabost orrialde) irakurri ondoren, ikasleek aldizka galde bat idatziko dute papertxo batean. Papertxoak kutxa honetan nahas-mahas ezarriko ditugu.”</i></p> <p>* Helburua argibide dokumentuaren ulertzea izanki, irakasleak ikasleak laguntzen ahalko ditu dokumentuaren irakurtzen, eta ikasleek galdeak irakasleari diktatzen ahalko dizkiote.</p> <p><u>Oharra:</u> galderen biltzean, irakasleak moldatzen ahalko ditu edo beste galde batzuk gehitu, testu osoaren ulermenaren lantzeko eta galdera mota bat baino gehiagoren erabiltzeko.</p>												
<b>Ikastalde osoa</b> 	<p><b>Testua uler ezazu 2)</b> 38.-50. orrialdeak</p> <p>Ikasle batek galdera bat zozketatuko du eta ikaskideei irakurriko die. Beste ikasleek erantzunak xerkatuko dituzte eta nola kausitu dituzten azalduko.</p> <p>Irakasleak galdera guztiak bilduko ditu eta orrialde batean idatziko, ondoko saioan erabiltzeko.</p>												
<b>Bakarka</b>	<p><b>Testua uler ezazu 3)</b></p> <p>* Laster ari direnei saio denboran asmatuiko galdera batzuk eman diezazkiekezue.</p>												
<b>Binaka</b>	<p>Ikasleek beren lanak elkarri irakurriko dizkiete.</p>												
<b>Ikastalde osoa</b>	<p>Argibide dokumentuen egituraren eta horien irakurtzeko estrategien bilduma egin daiteke afixa batean edo ikasle bakoitzaren euskarrian (<a href="#">Ikus gidaliburu honetako . or.</a>).</p> <p>Ikasleekin egin daitekeen erreferentzia-fitxa adibidea</p> <table border="1" data-bbox="352 1267 962 1843"> <thead> <tr> <th>Dokumentu-testua, zertako?</th> <th>Dokumentu-testuak nola antolatuak dira?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Dokumentu-testua galdeei ihardesteko egina da.</td> <td>Titulua: <i>gaita zer den adierazten du.</i> Azpiztituluak: <i>testu zatiak erakusten ditu.</i></td> </tr> <tr> <td>Galde baten ihardespeneraren xerkatzeko, lehenik galdearen gako-hitza xerkatu behar da.</td> <td><b>Mota anitzetako idatziak:</b> <b>Xedea:</b> • argibideen, • deskribapenen, • aginduen eta aholkuen ematea.</td> </tr> <tr> <td>Gero, gako-hitz hori dokumentu osoan xerkatu behar da. Ez dira erranaldi guztiak bat bestearen ondotik irakurri behar; testua laster eta azaletik kurritu behar da gako-hitz horren aurkitzeko.</td> <td><b>Itxura</b> desberdinak dituzte: • laburpen, • eskema-legenda, • marrazki, argazki, legenda, • beste.</td> </tr> <tr> <td>Gako-hitz hori ageri den pasarteak xehekiago irakurri behar dira, eta ihardetsi nahi den galdeari dagozkion zatiak xerkatu.</td> <td><b>Mota anitzetako dokumentuak:</b> • marrazkiak, • eskemak, • argazkiak, • umore-marrazkiak (irrigarriak), • taulak, • beste.</td> </tr> <tr> <td></td> <td>Dokumentu-testuetan, beste orrialde batzuetako erreferentziak badira (entziklopedia, metodo-fitxa, etab.) <b>Idazki eta dokumentu horiek elkarren arteko lotura badute.</b></td> </tr> </tbody> </table>	Dokumentu-testua, zertako?	Dokumentu-testuak nola antolatuak dira?	Dokumentu-testua galdeei ihardesteko egina da.	Titulua: <i>gaita zer den adierazten du.</i> Azpiztituluak: <i>testu zatiak erakusten ditu.</i>	Galde baten ihardespeneraren xerkatzeko, lehenik galdearen gako-hitza xerkatu behar da.	<b>Mota anitzetako idatziak:</b> <b>Xedea:</b> • argibideen, • deskribapenen, • aginduen eta aholkuen ematea.	Gero, gako-hitz hori dokumentu osoan xerkatu behar da. Ez dira erranaldi guztiak bat bestearen ondotik irakurri behar; testua laster eta azaletik kurritu behar da gako-hitz horren aurkitzeko.	<b>Itxura</b> desberdinak dituzte: • laburpen, • eskema-legenda, • marrazki, argazki, legenda, • beste.	Gako-hitz hori ageri den pasarteak xehekiago irakurri behar dira, eta ihardetsi nahi den galdeari dagozkion zatiak xerkatu.	<b>Mota anitzetako dokumentuak:</b> • marrazkiak, • eskemak, • argazkiak, • umore-marrazkiak (irrigarriak), • taulak, • beste.		Dokumentu-testuetan, beste orrialde batzuetako erreferentziak badira (entziklopedia, metodo-fitxa, etab.) <b>Idazki eta dokumentu horiek elkarren arteko lotura badute.</b>
Dokumentu-testua, zertako?	Dokumentu-testuak nola antolatuak dira?												
Dokumentu-testua galdeei ihardesteko egina da.	Titulua: <i>gaita zer den adierazten du.</i> Azpiztituluak: <i>testu zatiak erakusten ditu.</i>												
Galde baten ihardespeneraren xerkatzeko, lehenik galdearen gako-hitza xerkatu behar da.	<b>Mota anitzetako idatziak:</b> <b>Xedea:</b> • argibideen, • deskribapenen, • aginduen eta aholkuen ematea.												
Gero, gako-hitz hori dokumentu osoan xerkatu behar da. Ez dira erranaldi guztiak bat bestearen ondotik irakurri behar; testua laster eta azaletik kurritu behar da gako-hitz horren aurkitzeko.	<b>Itxura</b> desberdinak dituzte: • laburpen, • eskema-legenda, • marrazki, argazki, legenda, • beste.												
Gako-hitz hori ageri den pasarteak xehekiago irakurri behar dira, eta ihardetsi nahi den galdeari dagozkion zatiak xerkatu.	<b>Mota anitzetako dokumentuak:</b> • marrazkiak, • eskemak, • argazkiak, • umore-marrazkiak (irrigarriak), • taulak, • beste.												
	Dokumentu-testuetan, beste orrialde batzuetako erreferentziak badira (entziklopedia, metodo-fitxa, etab.) <b>Idazki eta dokumentu horiek elkarren arteko lotura badute.</b>												
<b>Ikastalde osoa</b>	<p>Saioaren bilana: <i>“Zer ikasi duzue?”</i> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</p>												

## 3. saioa

## Helburuak

Argibide dokumentuen irakurtzen ikastea.  
Erabili estrategia azalduz, galderen erantzunak ahoz egitea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	<p>38.-50. orrialdeak Irakurtzen eta idazten treba zaitetz 1) Ikasleek eskuliburua hetsirik izanen dute. <b>Irakaslea:</b> « <i>Dokumentuan den hitz multzo bat edo erranaldi bat irakurriko dizuet, bi aldiz. Isiltasunean, hitz horiek gogoan atxikiko dituzue. Erranen dudalarik, liburua irekiko duzue eta hitzak edo hitz-multzoak ahal bezain fite xerkatuko dituzue dokumentuan. Ondotik esplikatuko duzue nola atzeman dituzuen.</i>»</p> <p>Hitz multzo adibide batzuk - "Euskal herrian "longue paume" jokoan aritzen zen gehienik. - Errugbiko arauak franko konplikatuak dira. - Hamahiru arraunari eta patroia doaz trainerua. - Seg a ez da bakarkako lana. - Orain, traineru gehienak Orion eginak dira... - Euskal herritik kanpo ere sega probak egiten dira, Austrian adibidez. - Peio Dospital, ezizenez Doxpi, lapurtar errugbilari ohia da. - Esku eta erhietan "tako" izeneko gerizak ezartzen dira partida hasi aitzin.</p>
<b>Binaka</b>	<p><b>Testua uler ezazu 2)</b> 38.-50. orrialdeak Haurrek aitzineko saioko galderen bilduma ukanen dute. Ikasle batek galdera irakurriko dio lagunari, eta honek erantzuna xerkatuko. Ikasleek eginbideak trukatuko dituzte. Aldi oroz, ikasleek azalduko dute erantzuna nola aurkitu duten.</p>
<b>Bakarka</b>	<p><b>Testua uler ezazu 3) a)-b)-c)</b> 38.-50. orrialdeak Ikasleek erantzunak idatzi beharko dute eta nola aurkitzen diren azaldu beharko dute. <u>Oharra:</u> dokumentu batean argibideen aurkitzeko estrategiaren azaltzeko, ikasleek 2. saioan egin aztarna erabil dezakete.</p>
<b>Ikastalde osoa</b>	<p><b>Saioaren bilana:</b> "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</p>

So egin interneten: Emakume Master Cupeko abesti eta bideo ofiziala, Gora pilota maitea «Alaiak», Pilotarien biltzarra "Altzukutarrak"...

Youtube: Baionako Aviron taldearen himnoa eta zaleen kantak 3:48/7:59 hasten

## 4. saioa

## Helburuak

Argibide dokumentuen irakurtzen trebatzea.  
Galderen erantzunak egitea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Binaka</b>	3. saioko <b>Irakurtzen eta idazten trebatzeko 2)</b> jardueran bezala, hitz multzoak xerkaratzen ahalko zaizkie ikasleei, baita galderen erantzunak ere. Ikasleak binaka ariko dira.
<b>Bakarka</b>	USB gakoan den galdeketa bat proposatzen ahalko zaie ikasleei. - 38.-39. or.: Sega jokoak - 40.-43. or.: Traineru estropadak - 44.-45. or.: Errugbia - 46.-49. or.: Pilota (Hautu Anitzeko galdetegia HAG)
<b>Binaka</b>	Zuzenketa ikasleen artean antola daiteke.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: <b>“Zer ikasi duzue?”</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

<https://ehkirola.eus/bertan-behera-gelditu-da-euskal-herriko-i-sega-sail-lehiaketa/>

<https://goierri.hitza.eus/2020/10/23/igandean-jokatzekoa-zen-i-sega-sail-lehiaketa-ere-bertan-behera/>

<http://www.almitza.eus>

## 5. saioa

## Helburuak

Azalpen eta deskribapen testuen bereiztea eta ulertzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN			
<b>Ikastalde osoa</b>	43. orrialdeari fite so eginen diozue. <i>Irakaslea: “Arraunlari taldearen entrenamenduari buruzko deskribapen eta azalpen batzuk entzunen dituzue. Azalpenen arabera argazkiak atzeman beharko dituzue. Hasi baino lehen deskribapen eta azalpen testuen ezaugarriak oroitaraziko ditugu.”</i>		
<b>Bakarka</b>	Ikasle bakoitzari papertxo bat banatuko zaio ezaugarriak idatz ditzan.  <table border="1" style="width: 100%; text-align: center;"> <tr> <td style="width: 50%;">Deskribapena</td> <td style="width: 50%;">Azalpena</td> </tr> </table>	Deskribapena	Azalpena
Deskribapena	Azalpena		
<b>Taldeka</b>	Ikasleak hiruzpalaunaka bilduko dira bildumaren egiteko eta afixa batean ezaugarrien idazteko. Ikasleek adibide bat eman dezakete 43. orrialdean diren argazkietan oinarrituz.  <table border="1" style="width: 100%; text-align: center;"> <tr> <td style="width: 50%;">Deskribapena</td> <td style="width: 50%;">Azalpena</td> </tr> </table>	Deskribapena	Azalpena
Deskribapena	Azalpena		

### 3. GARAIA

<b>Ikastalde osoa</b>	1) Irakasleak haurren lanak arbelean afixatuko ditu eta irakurriko. Elementu amankomunak inguratuko dira, deskribapenaren eta azalpenen ezaugarriak argitzeko. Dударik edo galderarik izanez geroz, ikasleek Atxikaraua irakur dezakete.  2) Deskribapenak eta azalpenak entzunaraziko zaizkie ikasleei, eta arabera argazkia erakutsaraziko.
<b>Bakarka</b>	<b>Irakurtzen eta idazten treba zaitetz 3</b> Ikasle bakoitzari deskribapen zati bat eta azalpen zati bat hautatuko ditu, kopia ditzan.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: <i>“Zer ikasi duzue?”</i> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

[https://www.kazeta.eus/eu/info\\_kz/20210612/traineru-ontzia](https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20210612/traineru-ontzia)

### 6. saioa

#### Helburuak

Azalpen eta deskribapen testuen ulertzea.  
Argazkietan oinarrituz entrenamenduaren deskribatzea eta azaltzea.

#### Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	Traineru entrenamenduari buruzko deskribapenak eta azalpenak berrentzunaraziko zaizkie ikasleei.
<b>Bakarka</b>	Ikasleek argazkiak eta dagozkien deskribapen edo azalpenak lotuko dituzte.
<b>Binaka</b>	Ikasleek elkarri deskribatuko eta azalduko diote entrenamenduaren antolaketa: - materiala, tokia, jantziak ... - ariketak, mugimenduak...
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: <i>“Zer ikasi duzue?”</i> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

### 7. saioa

#### Helburuak

Pilotak nola egiten diren idaztea, deskribapen eta azalpen testuak erabiliz.

#### Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Ikastalde osoa</b>	Ikasleek 15. orrialdean diren argazkiak deskribatuko dituzte eta leiendak irakurriko.
<b>Bakarka</b>	<i>Irakaslea: “Argazkiak eta leiendak erabiliz pilotak nola egiten diren idatziko duzue. Zuen testuan, deskribapen eta azalpen zatiak agertuko dira.”</i>
<b>Binaka</b>	Ikasleek idatzi duten testua elkarri irakurriko diote.
<b>Ikastalde osoa</b>	Saioaren bilana: <i>“Zer ikasi duzue?”</i> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

## 8. saioa

## Helburuak

Elkarrizketaren ulertzea.  
Elkarrizketaren ezaugarrien ezagutzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Bakarka</b>	Ikasleek Jokin Altunaren elkarrizketa isiltasunean irakurriko dute.
<b>Binaka</b>	Ikasleek elkarrizketa berrirakurriko dute, batak elkarrizketatzailearen papera eginez eta besteak Altunarena.
<b>Ikastalde osoa</b>	<p><b>Ahoz adieraz ezazue 1</b></p> <p>Ikasleei ohartaraziko zaie elkarrizketatzailearen xedea Jokin Altunaren ezagutaraztea dela: "Superposterra: Jokinen bizi ibilbidea, gustatzen zaiona"</p> <p>Talde osoan, elkarrizketako galderak zerrendatuko dira.</p> <p><b>Ahoz adieraz ezazue 2 &amp; 3</b></p> <p>Egunero, kirolari baten elkarrizketa entzunaraziko zaie ikasleei, ulertu dutena elkarri kontaraziko eta ondotik galderak zerrendaraziko.</p>
<b>Binaka</b>	Ikasleek elkarrizketa bat entzun eta, elkarri kontatuko diote.
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

<https://m.facebook.com/BADAEus-102322812246575>

[https://www.eitb.eus/eitbpodkast/kirola/gurpilean/audioak/osoa/8116597/podcast-audio-gurpilean-12-  
iparraldeko-txirrindulari-afizionatuen-egunerokoaz-](https://www.eitb.eus/eitbpodkast/kirola/gurpilean/audioak/osoa/8116597/podcast-audio-gurpilean-12-iparraldeko-txirrindulari-afizionatuen-egunerokoaz-)

## 9. saioa

## Helburuak

Elkarrizketa baten egitea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Bakarka</b>	<p><b>Irakurtzen eta idazten treba zaitez 3</b></p> <p>Ikasle bakoitzari deskribapen zati bat eta azalpen zati bat hautatuko ditu, kopia ditzan.</p>
<b>Binaka</b>	<p><b>Ahoz adieraz ezazu 4</b></p> <p>Kirolarien elkarrizketa guztiak entzun ondotik, ikasleek elkar elkarrizketatuko dute. Bikoteak antolatu ondoren, elkarrizketatzaile bakoitzak galderak idatziz prestatuko ditu. Ondotik binaka elkarrizketa egingen dute.</p>
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

## 10. saioa

## Helburuak

Obra luze baten irakurtzea.  
Kirolari buruz eztabaidatzea.

## Ibilbidea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
<b>Bakarka</b>	<b>Obra luze bat irakur ezazu &amp; Idatz ezazu</b> Ikasleek Rita liburua irakurriko dute eta ondotik liburuaz duten iritzia emanen. * Irakurtzeko trebetasunaren arabera, ikasleek obra osoa irakurriko dute, edo kapitulu batzuk. Beste kapituluak irakasleak laburbilduko dizkie.
<b>Ikastalde osoa</b>	Kirolari buruzko eztabaida antolatuko du irakasleak. <i>Irakasleak: "Jende anitz ari da kirolean, arrazoi anitzengatik. Eztabaida antolatuko dugu gai horri buruz: Zuen ustez, lehiaketetan parte hartzea garrantzitsua ote da? Zer dira alde baikorrak eta alde ezkorrak? Argumentuak emanen dituzue eta arbelean zerrendatuko ditugu.</i> <i>Ondotik, launaka, kirol lehiaketei buruz eztabaidatzen trebatuko zarete: bi ikasle lehiaketen alde izanen dira eta beste bi kontra."</i>
<b>Launaka</b>	Irakasleak lau taldeak antolatuko ditu. Bi ikasle kirol lehiaketen alde izanen dira eta beste bi kontra. 5 minutuz, arbelean diren argumentuak baliatuz, kirol lehiaketari buruz argumentatzen trebatuko dira ikasleak.
<b>Ikastalde osoa</b>	Bukaeran irakasleak ikasleei galdeginen die: "Nola bizi izan duzue? Zer zen zaila? Zer zen aise? Aiseago aritzeko, zer behar duzue?" Ideien defenditzeko trebatu behar dela eta lotura hitzak beharrezkoak direla ohartuko dira.
<b>Bakarka</b>	Ikasleek argumentatze testuen ezaugarriak irakurriko dituzte Atxikarauan. Beharrez beste lotura hitz batzuk kopiatuko dituzte.
<b>Launaka</b>	Launaka, ikasleak berriz trebatuko dira lotura hitzen baliatzen.
<b>Ikastalde osoa</b>	<i>Irakasleak: "Ikastalde aitzinean eztabaidatuko duzue. Beste ikasleek entzunen dute eta ebaluazio irizpide batzuetan oinarrituz zuen argumentatzea ebaluatuko.</i> <i>Eztabaida bat bukatu eta, aldatuko dugu, beste lau ikasle mintzatuko dira, eta besteek entzunen dute."</i>
<b>Ikastalde osoa</b>	<b>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?"</b> Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

## Luzapenak

Gaiaren luzatzeko, munduko herri kirol batzuk aurkezten ahalko dira.

Euskara 2 metodoan jokoan arauak berrirakur ditzakezue (USB gakoan), herri kirolen aurkezteko "eredu" bat ukan dezaten: materiala - eremua - jokalaria - arauak.

<https://fr.unesco.org/themes/sport-antidopage/jeux-et-sports-traditionnels>

Jeux Boule flamande ou <https://www.jeuxpicards.org/bouleflamande/bouleflamande.html>